

IRAGARKIA

Udalbatzak 2025eko urtarrilaren 27an erabilera anitzeko etxebizitzarako funtzionamendu araudiaren aldaketari hasierako onarpena eman dionez, jendurrean jartzen da interesdun guztiek bidezko dituzten erreklamazio eta iradokizunak aurkez ditzaten Udaleko Idazkaritzako bulegoetan, 30 eguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki hau argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Jendurreko epean erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ezean, ordenantza behin betirako onartutzat hartuko da, berariazko erabakirik Udalbatzak hartu gabe, eta horren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko du.

Erabilera anitzeko etxebizitzarako funtzionamendu araudiaren 11. artikulua edukia aldatzen da, honako eduki honekin utziz.

11. artikulua.

Hutsegite arinak, larriak eta oso larriak izango dira:

- Hutsegite arinak izango dira:

- Bizikidetzeta eta elkarrenganako errespetu-arauak hondatzea, etxebizitzako egoiliarren edo bertako langileen artean haserre-egoerak sorraraziz.
- Etxebizitzako instalazio eta bitartekoak modu desegokian erabiltzea, edo bertako jarduerak eten edo hondatzea.
- Edonolako liskar, sesio edo borrokatan parte hartzea edo bultzatzea.

- Hutsegite larriak izango dira:

- Hutsegite arinak behin eta berriro egitea, zehatzago hiru edo gehiago urtebeteko epean.
- Bizikidetzeta-arauak maiz hondatzea, etxebizitzan giro txarra edo egonezina sorraraziz.
- Etxebizitzatik kanpoko egonaldien (hiru egun edo gutxiago) berri ez ematea arduradunari.
- Irain, birao nahiz bestelako errespetu-faltaz mintzea etxebizitzako egoiliarrek edo langileak.
- Ondasunak edo nolanhiko objektuak lapurtzea egoiliarrei, etxebizitzari edo bertako langileei.
- Norberaren espedienteari buruzko datuak (edo etxebizitzako edozein zerbitzu zein eskaintzaren erabilerari buruzkoak) faltsutu edo ezkutatzea.

- Hutsegite oso larriak izango dira:

- Hutsegite larriak behin eta berriro egitea, zehatzago hiru edo gehiago urtebeteko epean.
- Etxebizitzako erabiltzaileei, bertako langileei edo zerbitzuarekin lotura duen edonori eraso fisikoak edo tratu txarrak eragitea.
- Etxebizitzatik kanpoko egonaldien (hiru egun baino gehiago) berri ez ematea arduradunari.
- Datuak edota deklarazioak faltsutzea edo ezabatzea, baldin eta haien ekarpena derrigorrezkoa bada ekarlea etxebizitzaren erabiltzaile delako.

Begara, 2025eko otsailaren 25a

Idazkariak